

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3876

*EBAZPENA, 2021eko ekainaren 1ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.*

### AURREKARIAK

2021eko martxoaren 16an, Laudioko Udalak eskatu zuen Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari (aurrerantzean, HAPOren aldaketa) dagokion ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura hasteko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera. Eskaerarekin batera, zenbait agiri aurkeztu zituen, hala nola HAPOren aldaketaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikuluan xedatutako edukia zuena.

21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2021eko apirilaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien administrazio publiko ukituei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Era berean, Laudioko Udalarari jakinarazi zitzaion prozedura hasi zela.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen zituen oharra egin ahal izateko.

Legezko erantzun-epea amaitu, eta espedientearekin lotutako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa (aurrerantzean, HAPOren aldaketa), abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikuluan jasotako kasuen artean dago; hor ezartzen da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasatu behar diren plan eta programak, honako hauek zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoa ezarritakoaren arabera, edo plan edo programari buruzko ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar dela, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzakeelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulutik 32. artikulura bitartean dago araututa, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

HAPOn aldaketaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-ebaluazio estrategikoa zuzena eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak (eskumena duen organoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera). Ingurumen-txosten estrategiko horretan, HAPOn aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen ala ez, edota, bestela, zer baldintza ezarri behar diren HAPOn aldaketa garatu, eta ingurumena behar bezala babesteko.

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa egitea, jarraian zehazten den moduan:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

ZI.6B-Tubacex eremua Arza industrialdearen iparraldeko muturrean dago, Laudioko hirigunearen hegoaldean. 72.974 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta erabilera industrialeko hiri-lurzoru gisa dago sailkatuta indarreko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean. ZI.6B-Tubacex eremuaren barruan, 3. poligonoko 263. lurzatiak 11.635 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta izaera industrialeko eraikinak daude hor, gaur egun jarduerarik gabe daudenak.

HAPOn aldaketaren xedea da erabilera-araubide berezi bat finkatzea ZI.6B-Tubacex izeneko eremurako, eta 3. poligonoko 263. lurzatiaren antolamendu xehatua finkatzea, lurzati horretan erabilera komertzialak ezarri ahal izateko.

Egiturazko zehaztapenak:

Hori horrela, HAPOn aldaketak, ZI.6B-Tubacex eremuko erabilera-araubide berezian, erabilera «baimendu» gisa jaso du «merkataritza txikizkaria», EAEko establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzko 10/2019 Legean ezarritako mugei jarraikiz.

Gainera, aldatu egin da antolamendu xehatuari buruzko araudia. Izan ere, HAPOn arabera, Plan Berezi baten bidez garatu behar da, eta, plan horretan, ZI.6B Eremuaren esparru osoa hartu behar da kontuan; baina HAPOn aldaketaren arabera, antolamendua esparru txikiagoen arabera zehaztu ahal izango da (gaur egungo lurzatiaren arabera).

Zehaztapen xehatuak:

Halaber, HAPOn aldaketaren proposamenak 263. lurzatiaren antolamendu jakin bat zehazten du, eta honako hauek ateratzen dira hortik: erabilera komertzialerako zati bat (10.091,18 m<sup>2</sup>) eta bide-erabilerarako beste bat (613,39 m<sup>2</sup>); lurzatiarako sarbidea Hiru Gurutzeta kalearen eta Zumalakarregi hiribidearen arteko bidegurutzean dagoen biribilgunean egongo da. Lurzati pribatuaz gainera, lagapen-espazio bat ezarri da antolamenduan, eremu libre edo berdegune gisa erabiltzeko (750,55 m<sup>2</sup>), lurzatiaren aurrealdean.

Merkataritza-lurzatiaren barruan, aparkaleku-eremuak eta eraikin komertzialak jartzea proposatzen da, L formako multzo bat osatuz, Hiru Gurutzeta kaleko biribilgunerantz irekia. Lurzatiaren osaera eta aurreikusitako erabilera komertziala kontuan hartuta, kontuan hartu da eraikuntzen zati bat aparkalekuz bete ahal izango dela. Lurzatiaren hirigintza-eraikigarritasuna 9.788,62 m<sup>2</sup>t-koa izango da; horietatik, 5.000 m<sup>2</sup>t saltokiak izango dira, eta gainerako 4.788,62 m<sup>2</sup>t-ak, aparkalekuak.

Hirigintza-garapen berri honetan, egungo sestrak aldatzea proposatzen da, biribilgunetik izango duen sarbidearen inguruan lurzattia pixka bat altxatzeko, eta, horrela, horizontaltasun handiagoa izateko eta gaur egungo uholde-arriskua murrizteko.

B) Proposatutako HAPOn aldaketaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikularekin bat etorriz, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, Planaren aldaketak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez zehazteko.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

a) Planaren aldaketak zenbateraino ezartzen duen proiektuetarako esparru bat: aurkeztutako dokumentazioaren arabera, HAPOn aldaketak ez dauka baldintzatzailerik, besteak beste, koka-pen, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari dagokienez, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legeetan zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektuak etorkizunean baimentzeko.

b) Planaren aldaketak zenbateraino eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, bai eta hierarkizatuta dauden ere: HAPOn aldaketaren esparrua 11.635 m<sup>2</sup>-ko hiri-lurzoruko lurzati bat da, lurzoru industrial gisa sailkatuta dagoena, eta erabilera komertzialen ezarpenera bideratuko dena. HAPOn aldaketaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu plangintza nagusiarekiko bateraezintasunik.

c) Planaren aldaketaren egokitasuna ingurumen-arloko irizpideak barne hartzeko, bereziki, garapen jasangarria sustatzeko: HAPOn aldaketa egokia da, garapen jasangarria sustatzeko ingurumen-irizpideak barnean hartzeko. Ez da okupatuko artifizializatu gabeko lurzoru berririk, gaur egun erabiltzen ez den hiri-lurzoru industrial berrerabiliko baita. Gainera, eraikinak egiteak energia-aurrezkoa eta energia-efizientzia sustatzera bideratutako jarduerak bultzatuko ditu.

d) Planarekin loturiko ingurumen-arazo adierazgarriak: ez da hauteman HAPOn aldaketak eragindako ingurumen-arazo adierazgarriak, baldin eta, ukitutako eremuan egiten diren esku-hartzeak eta jarduerak arlo hauetako araudiei jarraikiz gauzatzen badira, besteak beste: segurtasuna eta osasuna, ingurumena, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, hondakinen kudeaketa, kutsadura akustikoa eta, bereziki, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan uholde-arriskua duten eremuei buruz ezarritako araudia.

e) Era berean, HAPOn aldaketa egokitzat jotzen da ingurumen-arloko Batasuneko edo nazio-mailako legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta eragina pairatu lezakeen eremuaren ezaugarriak:

Lehen esan dugun eran, HAPOn aldaketa honen xede den esparrua 3. poligonoko 263. lurzattia da, ZI.6B-Tubacex eremukoa. Hiri-lurzorua da, eta 11.635 m<sup>2</sup>-ko azalera du; horietatik, gaur egun erabiltzen ez diren industria-instalazioak daude 6.053 m<sup>2</sup>-tan.

Eragina jasan dezakeen eremuaren ingurumen-balioa txikia da; izan ere, ez da eraginpean geratuko natura balio aparteko gune garrantzitsurik, ezta balio kulturala duenik ere; halere, haute-man dira zenbait ingurumen-arrisku, honako hauek zehazki:

– Esparruko lurzatia eta eraikinak irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan (Lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan) jasotako leku batean daude, 01036-00007 kodeaz.

– Eremuak uholdeak jasateko arriskua du, 500 urteko errepikatze-denborakoa. Nerbioi ibaia esparruaren hego-ekialdetik igarotzen da; beraz, nahiz eta esparruaren zati bat uholde-arriskuko zaintza-eremu baten barnean dagoen, proposatutako eraikinak ibilguarekiko duen gehieneko lerrokadurak gune horretatik kanpo uzten du merkataritza-eraikinaren zati handiena. Azpimarratu behar da Nerbioi ibaia, Laudiotik igarotzen den zatian, ES017-BIZ-10-1 Nerbioi Ibaia Uholde Arrisku Potentzial Nabarmena duen Eremuan (ARPSI) sartuta dagoela, III. taldean.

– Esparruaren zonakatzeko akustiko berria: Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretuan (urriaren 16ko 213/2012) xedatutakoari jarraikiz, D motako eremu akustikoan sartzeko da: jolaserako eta ikuskizunetarako ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-sektoreak. Zonifikazio akustikoaren aldaketa horrek Kalitate Akustikoaren Helburu (KAH) berriak betetzea eskatzen du, zorrotzagoak direnak.

Orain artekoa ikusita, eta proiektuan proposatutako jarduketak eta Planaren ukipen-esparrua kontuan hartuta, inpaktu nagusiak obra-fasean eragitea espero da; izan ere, eraikin industriala eraitsiko dira eta lurrak mugituko dira kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituen lurzori batean. Kutsa dezakeen edo zezakeen jarduera edo instalazio bat duen edo izan duen lurzoruaren erabilera-aldaketa horrek lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hastea eskatzen du, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen (lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa) 23.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Orobat, obra-fasean, aldi baterako inpaktuak sortuko dira, hala nola hondakinen sorrera, makinaren joan-etorriak, istripuzko isurketak egiteko arriskua, herritarrentzako eragozpenak emisio atmosferikoen eta akustikoen ondorioz, etab. Hori dena guztiz hiritarra den esparru batean.

Horregatik guztiagatik, esan daiteke ez dela haute-man HAPOn aldaketa gauzatzearen ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarriak, baldin eta, eragindako eremuan egiten diren esku-hartzeak eta jarduerak gauzatzean indarrean dagoen araudia betetzen bada, besteak beste, segurtasunari eta osasunari, ingurumenari, kutsadura akustikoari eta uholde-arriskuari dagokienez.

3.– Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, HAPOn aldaketak ez dezan izan ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik, eta Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketari ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik ez izateko, betiere, ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira.

Neurri babesle eta zuzentzaileak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, Ingurumen Txosten Estrategikoak formulatzen duen ebazpenean adierazitakoarekin bat, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, Ingurumen Agiri Estrategikoan eta esparruaren antolamendurako planetan jasotakoarekin bat etorriz. Honako hauek dira HAPOn aldaketarekin lotutako proiektuak gauzatzeko hartu behar diren neurri nagusiak:

– Jabari Publiko Hidraulikoa (JPH) babestera eta uholde-arriskuak ahalik eta txikienak izatera bideratutako neurriak.

HAPOn aldaketak proposatzen du etorkizuneko eraikin komertzialaren sestra aldatzea, 500 urteko erreplikatze-denborako ur-mailara. Jarduketa hori diseinatzean, kontuan hartu beharko da ezin dela ur-xafla nabarmen handitu, ez dadin efektu hidraulikorik egon. Edonola ere, jarduketak bateragarria izan behar du Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 14.bis artikuluan aipatutako mugekin, abenduaren 9ko 638/2016 Errege Dekretuan emandako idazketari jarraikiz, Plan Hidrologikoaren araudian lehentasunezko fluxu-eremutik kanpoko uholde-arriskua duten eremuetako erabileretarako ezarritako muga espezifikoaren kaltetan izan gabe.

Orain arte esandakoarekin lotuta, ibilguen zaintza-eremuan edozein obra edo lan egin aurretik, arroz arduratzen den organismoaren administrazio-baimena eskuratu beharko da. Baimen horrek ez du loturarik izango Administrazio Publikoetako beste organo batzuek eman beharrekoekin (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9.4 artikulua; apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta urtarrilaren 11ko 9/2008 EDren bidez aldatu).

– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin lotutako neurriak.

Lurzatia irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan (Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan) 01036-00007 kodeaz jasota dagoen eta 11.635m<sup>2</sup>-ko azalera duen leku batean dago.

Kutsa dezakeen edo zezakeen jarduera edo instalazio bat duen edo izan duen lurzoruaren erabilera-aldaketa horrek –kalifikazioa– lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hastea eskatzen du, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen (lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa) 23.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hortaz, planetik eratorritako jarduketetan –esaterako, lur-mugimenduak edo esparruko industria-eraikin zaharkituak eraitea–, kontuan hartu beharko dira, hala badagokio, lurzoruaren kalitate-deklarazioaren prozedurarekin bat ezartzen diren kontsiderazioak; ekainaren 25eko 4/2015 Legean (lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa) araututa dago prozedura.

– Zaratzen eraginak gutxitzeko neurriak.

HAPOn aldaketaren xede den esparruan, kanpo-zaratari dagokionez, egungo egoeran zein etorkizuneko egoeran, betetzen dira etorkizuneko hirigintza-garapenetarako eta aztergai dugun esparruaren eremu akustiko motarako (c) letran aurreikusitakoez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-sektoreak) ezarritako Kalitate Akustikoaren Helburuak (KAH), Hiru Gurutzeta kalearekin mugakide den zerrenda txiki batean izan ezik, hor gainditu egiten baitira KAHk, goizez eta arratsalde. Hori horrela, HAPOn aldaketak neurri gisa proposatzen du egote-erabilerarik ez jartzea, Hiru Gurutzeta kalearen alboko esparruaren mugatik 5 metroko zerrenda batean.

Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretuaren (urriaren 16ko 213/2012) 36. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, ezin izango dira gauzatu garapen berriak kanpoko ingurunean kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez badira, hargatik eragotzi gabe dekretu horren 43. eta 45. artikuluetan xedatutakoa.

– Beste neurri babesle eta zuzentzaile batzuk.

Bestalde, garapen-proiektuak gauzatzean aplikatuko diren neurriak loturik egongo dira obretako jardunbide egokien eskuliburuarekin, lurren eta soberakinen kudeaketarekin, hondakinen sorkuntza eta kudeaketarekin, induskatutako lurzoruen kontrolarekin eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestearekin. Besteak beste, HAPOn aldaketatik eratorritako obrak gauzatzeko, babes- eta zuzenketa-neurri hauek bete beharko dira:

– Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua. Alderdi hauei loturiko alderdiak behintzat hartuko ditu barnean: lanaldiak, makineria, isurketen prebentzioa, ahalik eta hauts eta

zarata gutxiena sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa duten jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea, eta abar.

– Obrak, bai eta lurzoruaren okupazioa dakarten gainerako eragiketa osagarriak ere, proiektua egikaritzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Kontratistaren instalazio eremuak, makinak gordetzeko guneak, lan txabolak, landare-lurra eta obrako materialak eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak proiektatzerakoan, ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpidea izango da kontuan.

– Hondakinak sortzea eta kudeatzea: Hondakin eta zoru kutsatuei buruzko Legeak (uztailaren 28ko 22/2011) araututako moduan eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutako moduan kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorriak barne.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzen duen Dekretuan (ekainaren 26ko 112/2012) xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Obretan sortutako indusketa-soberakinak baimendutako soberakin-biltegira eramango dira, eta indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Amiantoaren duen hondakinik edo elementurik aurkitzen bada, otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuak (amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura prebenitzeko eta murrizteari buruzkoa) ezarritakoa bete beharko da, baita martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak (amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu behar zaizkien segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen) ezarritakoa ere.

Industrian Erabilitako Olioaren Kudeaketa Arautzen duen Errege Dekretuari (ekainaren 2ko 679/2006) jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio erabiliak.

– Lurzoruak eta lurpeko urak babestea: prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isuriaren eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriak kaltetutako lurra kentzea eta kudeatzea, etab.).

– Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea (maiatzaren 9ko 6/2019) ezarritakoa gorabehera, obrak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Departamenduari; hark erabakiko du zer neurri hartu behar diren.

– Zaratari buruzko Legea (azaroaren 17ko 37/2003) garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokie, otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen; apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora. Obrak egunez egingo dira.

– Kamioiek obran sartzeko edo obratik irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira, presiozko ura, erratz-makinak edo, hala badagokio, dekantazio-putzura konektatutako gurgilak garbitzeko gailuak erabiliz.

– Landare- eta lore-estaldura lehengoratzeko lanetan, biodibertsitate autoktonoa sustatzeko jarduerak bultzatuko dira, jasangarritasun-irizpideak lehenetsiz jarduera horietan, espezie inbaditzaileak sartzeko arriskua murrizteko. Horretarako, kontuan hartuko dira «Lorategi eta berdegune

jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendioak eta neurriak. Eskuliburua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak argitaratu zuen.

– Ahalmen inbaditzaileko espezie aloktonoak kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko behar diren neurriak hartuko dira; landareztatze-lanetan eta urbanizazioko lorategi-lanetan erabiliko diren mailegu-lurren eta landare-lurren jatorria eta osaera kontrolatu beharko da.

– Eraikingintza eta eraikuntza jasangarrienerako behar diren ezaugarriei dagokienez, «EAEko etxebizitzaren eraikingintza jasangarriaren gida» argitalpeneko gomendioak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpena eta efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.
- Energia. Berriztagarriak ez diren iturrien bidez sortzen den energiaren kontsumoa eta/edo sorkuntza murriztea.
- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketak ondorio kaltegarri esanguratsurik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Laudioko Udalari.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea. Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduariaren 9ko 21/2013) 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko honek indarra galduko du eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko epean, Laudioko ZI.6B-Tubacex eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da HAPOren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 1a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.